


ETAPA 14.

PLENTZIA-AREETA 20,4 KM

Desnibela-desnivel +680m / - 678m



GR 123

BIZKAIKO BIRA OINEZ
SENDERISMO
HIKING

LA VUELTA A BIZKAIA - THE TOUR OF BIZKAIA



Topogida - Topoguía




Bizkaia

foru aldundia
diputación foral



14. ETAPA Plentzia-Areeta | 20,4 Km / 6 h 30' h

Desnibela-desnivel + 680m / - 678m



MIDE datuak / datos MIDE



Ingurunea
Medio



Ibilbidea
Itinerario



Desplazamendua
Desplazamiento



Ahalegina
Esfuerzo



MIDE ordutegia
Horario MIDE

14. Etapa

1

1

1

4

6h 30'

Ingurunea
arriskutsua
gerria daiteke
El medio no
está exento
de riesgo

Ondo zehaztutako
bide eta bidegurutzeak
Camino y cruces
bien deñidos

Azal lauetatik
doan ibilaldia
Marcha por
superficie lisa

6 tik 10 ordura
bitarteko benetako
ibilaldia
De 3 a 6 horas de
marcha efectiva



Ikurrak - Iconos - Icons



Zu hemen zaude
Ud, está aquí
You are here



Autoz iristeko puntua
Acceso con vehículo
Vehicle access



Baseliza
Ermita
Hermitage



Aterpea
Refugio
Refuge



Ondare arkeologikoa
Patrimonio arqueológico
Archaeology Heritage



Atsedenlekua
Área recreativa
Recreational area



Ikuspegi panoramikoa
Vista panorámica
Panoramic view



Iturria
Fuente
Source



Hondartza
Playa
Beach



Koba
Cueva
Cave



Ondare monumental
Patrimonio monumental
Monumental Heritage



Megalitoa
Megalito
Megalith



Web Euskera



Web Castellano



Track

EU

Hasiera”

GR 123 Bizkaiko Itzuliaren etapa honek historia geologikoaren sekretuak gordetzen ditu bere itsaslabar eta hondartzetan. Plentzia eta Getxo lotzen dituen ibilbidean, labarretara joko dugu, harkaitz tolesdura bitxiez eta hondartza ikusgarriez gozatzeko. Oraingoan Bizkaiko Flysch-a hurretik ezagutuko dugu.

Plentziako udaletxearen ondoan hasten da etapa, eta Butroeko itsasadarren ondoan dagoen Zugaitz pasealeku ederretik Plentziako oinezkoentzako zubi berrira iritsiko gara. Javier Manterola arkitektoak diseinatu zuen eta 1991n eraiki zen, 1983ko abuztuko uholdeetan suntsitutako zubi zaharraren ordeaz.

ES

Inicio”

Esta etapa de la “GR 123 Vuelta a Bizkaia” guarda entre sus acantilados y playas los secretos de su historia geológica. En el recorrido que une Plentzia con Getxo nos asomaremos a escarpadas zonas con caprichosos pliegues de roca y espectaculares arenales. En esta ocasión conoceremos de cerca el Flysch de Bizkaia.

La etapa comienza junto al ayuntamiento de Plentzia y el precioso paseo Zugaitz junto a la ría del Butrón nos conducirá hasta el nuevo puente peatonal de esta villa. Fue diseñado por el arquitecto Javier Manterola y construido en 1991, en sustitución del antiguo, que fue arrasado en las inundaciones de agosto de 1983.

GR[®] 123

BIZKAIKO BIRA

LA VUELTA A BIZKAIA - THE TOUR OF BIZKAIA

OINEZ
SENDERISMO
HIKING

P



LE

EU

KM - 0

Barrika

”

Zubia zeharkatu ondoren, itsasadarraren eta Txipioko hezegunearen artean dagoen bide luze batek Barrikako San Telmo auzoraino eramango gaitu. Antzinako baleazaleen herri hau, gaur egun, balio natural handiko lekua da itsaslabar ikusgarri eta harkaitzezko hondartza politei esker.

San Telmo auzotik, bidezidor estu batek Muriolako hondartza nudistara eramango gaitu, “La Cantera” izenez ere ezagutzen dena. Ekialdera begira dago, itsas horma zoragarrien babespean. Bide mehar batetik aurrera jarraituko dugu, Txitarropuntan dagoen balkoi panoramiko batera heldu arte. Talaia eder honek Butroe ibaiaren bokalearen ikuspegi aparta eskaintzen digu.

Hemendik aurrera, kostaldeko itsasertz osoa amildegiei itsatsita igaroko dugu. Itsasoko eta mendiko paisaia zirrargarri inguratuta aurreratu ahal, Bizkaiko historia geologikoaren sekretu batzuk agertuko zaizkigu. Gure bidezidorra itsaslabarren goiko aldetik doa; beraz, geruzetan dauden arroken ezaugarriak eta xehetasuna ikusi nahi izanez gero, itsasoaren mailara jaitsi beharko dugu bidean aurkitzen diren hondartza ugarietako batean.

Zehazki, Goikomendiazpi deitzen den kalan, chevron motako tolestura angeluarrak (V formakoak) azaleratzen dira, eta, horren ondorioz, geologoen artean, “angelu-tolesduren Kapera Sixtino” gisa ezagutzen da.

Mendebalderantz goazela, lehenengo, gora egingo dugu pixka bat, Bustintzako tontor txikira igotzeko. Barrika hondartzako aparkaleku handiraino jarraituko dugu gero. Hondartza bisitatu nahi badugu, eskaierak jaitsi beharko ditugu, eta gero berriro igo, etapan aurrera egin ahal izateko. Barrikakoa hondartza ederra da, baina marearekin batera desagertu egiten da, eta, beraz, oso adi egon beharra dago. Hareaz eta arrokez gauzatutako bere hondoak uhin oso egokiak sortzen ditu surferako, bere ezkerreko olatu luze eta erraz nabarmentzen delarik.

Bere inguruetan duna batzuk kontserbatzen dira, non historiaurreko silexezko lanabesak aurkitu diren. Duela gutxiko indusketetan, Chatelperroniense aldiko ehiztari-biltzaileen tresnak egiteko tailer bat topatu da bertan. Adituen arabera, Europako garrantzitsuenetako bat da.



ES

KM - 0

Barrika

Una vez cruzado el puente, una larga recta situada entre la ría y el humedal de Txipio nos conduce hasta el barrio San Telmo del vecino municipio de Barrika. Este pueblo de antiguos balleneros hoy en día es un lugar de gran valor natural gracias a sus acantilados de vértigo y sus bonitas playas de roca.

Desde el barrio San Telmo un estrecho sendero nos llevará a la playa nudista de Muriola, también conocida como “La Cantera”; se halla situada en una pequeña ensenada orientada hacia el este y protegida por acantilados de gran belleza. Seguiremos avanzando por un angosto camino hasta llegar a un balcón panorámico natural en la punta Txitarropunta. Esta preciosa atalaya nos ofrecerá una espléndida vista de la desembocadura del río Butrón.

A partir de este punto recorreremos todo el litoral de la costa ceñidos a los acantilados. Además de caminar rodeados de un paisaje de mar y montaña impactante, contemplaremos algunos de los rastros de la historia geológica de Bizkaia. Nuestro sendero transcurre por la parte alta de los escarpes por lo que, si queremos observar las características rocas de capas estratificadas, tendremos que bajar hasta el nivel del mar en alguna de las numerosas playas que encontraremos en nuestro itinerario.

Concretamente, en la cala conocida como Goikomendiazpi, se observa un afloramiento excepcional de pliegues angulares de tipo chevron (en forma de V), que hacen que este lugar sea conocido entre los geólogos como “la Capilla Sixtina de los pliegues angulares”.

Caminando hacia el oeste, subiremos primero un poco para llegar hasta la pequeña cima de Bustintza, que nos regala una inmejorable panorámica. Seguiremos hasta el gran aparcamiento de la playa de Barrika. Si queremos visitar la playa tendremos que bajar las escaleras de acceso y luego volver a subirlas, para poder proseguir con la etapa. Se trata de una preciosa playa escondida que desaparece con la marea, por lo que hay que estar muy atento. Su fondo de arena y rocas produce olas muy adecuadas para el surf, donde destaca su izquierda larga y maniobrable.

En sus proximidades se conservan unas dunas en las que se han hallado utensilios de sílex prehistóricos. En excavaciones recientes se ha descubierto un taller para la construcción de herramientas de cazadores-recolectores del período Chatelperroniense que, según los expertos, se trata de uno de los más importantes del continente europeo.



NTZ

EU

Flyscha

Ahoskatzeko hitz arraro eta konplexu egiten dena hori alemanetik dator ("flissen") eta jarioa edo irristatzea esan nahi du. Flyschak duela 110 milioi urte itsasoaren azpian sedimentuak metatuz hasi zuen bere eraketa, gutxi gorabehera 60 Mu urtetan zehar.

Sedimentu horiek poliki-poliki metatzen joan ziren, eta, horrela, osaera desberdineko geruzak eratzen joan ziren, flysch motaren arabera: kareharrizko geruzak eta/edo hareharrizko geruzak, gogorrak, eta margak eta/edo lutitak, bigunenak, geruza batzuk besteekin txandakatuz. Hala ere, zenbait kasutan, sedimentuen urpeko lur-jausien ondorioz sortu ziren depositu horiek, normalean itsas hondoaren subsidentziak sortuak, Bizkaiko Golkoa irekitzearen ondorioz, turbidita izeneko geruzak sortuz.

Kretazeotik Oligozenora arteko talka handia deiturikoan, plaka iberiar txikiak Europako plaka handiaren aurka talka egiten du, eta milioika urtetan sortu diren sedimentu guztiak tolestu, hautsi eta altxatu egiten dira, euskal kostaldean aurkitzen ditugun tolestura eta goragune gehienak sortzeko, edo mendilerro handiak sortzeko, hala nola Pirinioak edo Himalaiako mendikatea.


ES

El Flysch

Esta palabra extraña y compleja palabra de pronunciar, proviene del alemán "flissen" y significa fluir o deslizar. El flysch comenzó su formación hace 110 millones de años debajo del mar por acumulación de sedimentos a lo largo de muchísimo tiempo, aproximadamente 60 M.a.

Estos sedimentos se fueron depositando lentamente, y así fueron formándose capas de distinta composición, en función del tipo de flysch: de calizas y/o areniscas las duras y de margas y/o lutitas las más blandas, alternándose unas capas con las otras. Sin embargo, en algunos casos, estos depósitos se formaron debido a avalanchas submarinas de sedimentos, originadas normalmente por la subsidencia del fondo marino, producto de la apertura del Golfo de Bizkaia, creando capas denominadas turbiditas.

Durante la llamada gran colisión desde el Cretácico hasta el Oligoceno, la pequeña placa ibérica choca contra la gran placa europea y todos los sedimentos que se han formado durante millones de años se pliegan, se fracturan y se levantan para crear la mayoría de pliegues y elevaciones que encontramos en Euskadi, o grandes alineaciones montañosas como los Pirineos o la cordillera del Himalaya.





KM - 9

EU

Sopela

Bidea Kurtzio gainera igotzen da apur bat, eta gero Meñakozerantz jaitsi, Sopelako labarretan ezkutatutako kala arrokatu txiki batera. Sopelako udalerrria hondartza eta itsaslabarren paradisua da. Herri hain handia izan ez arren, uda garaian milaka lagunez betetzen da, bertako hiru hareatza ederretakoren batean eguzkiaz, itsasoaz eta beroaz gozatuz.

Meñakozko kala gainditu ondoren, Sopelmar urbanizazioarekin bat egingo dugu, eta Arrietara eta Atxabiribil hondartzetako aparkalekura iritsiko gara, bi hondartza hauek itsasbeheran elkartzen direnean, Bizkaiko luzeena osatzen dute. Hondartza horietan dago K/Pg (Paleogenoa) edo "Meteoritoaren aztarna". Lurraren historiaren Kretazeoaren eta Tertziarioaren arteko muga geologikotzat hartzen delako deitzen da horrela. Itsasertzeko bideari segituko diogu, Sopelako hirugarren hondartzarekin topo egin arte; Barinatxe, La Salvaje izenez ere estimatua. Hondartza hau oso ezaguna da surfa eta parapentea maite dutenen artean. Aurreraxeago Gerra Zibil sasoiko bunker zahar bat aurkituko dugu, eta bertatik Sopelako hondartza zoragarrien argazkiak atera ahal izango ditugu.

KM - 9

ES

Sopelana

Nuestra ruta asciende levemente hacia el alto de Kurtzio para luego descender hacia Meñakoz, una pequeña cala rocosa escondida en los acantilados de Sopelana. El municipio de Sopelana es un paraíso de playas y acantilados. Este pequeño pueblo, se ve inundado en época estival por miles de personas que buscan disfrutar del sol, el mar y el calor en alguno de los tres hermosos arenales del municipio.

Tras superar la cala de Meñakoz conectaremos con la urbanización Sopelmar para llegar al aparcamiento de las playas de Arrietara y Atxabiribil, que cuando están unidas en bajamar forman la playa más larga de Bizkaia. Es en ellas donde se encuentra el punto geológico de K/Pg (Paleógeno) o "La huella del meteorito". Se denomina así porque es considerado el límite geológico entre los períodos Cretácico y el Terciario de la historia de la tierra.

Seguiremos nuestro camino litoral hasta conectar con la tercera playa de Sopelana, Barinatxe, conocida popularmente como La Salvaje. Este arenal es muy estimado entre los amantes del surf y del parapente. Un poco más adelante encontraremos un viejo búnker de la época de la Guerra Civil, desde donde podemos tomar fotografías de las preciosas playas de este municipio.



G

E





EU

KM - 17

Getxo

Bunkerretik aurrera, kostaldeko bidezidorra harbide zabal eta eroso bihurtzen da, eta bertatik jarraituz Galea lurmuturreraino helduko gara. Ertz horretan izen bereko itsasargia eta gotorlekua aurkituko ditugu. XVIII. mendeko gotorleku hori Bilborako merkataritza-trafikoa defendatzeko asmoz jaso zen, eta Bizkaian ez da geratu gizaldi hartako beste eraikuntza militarrik. Azken urteotan, "Punta Galea Challenge" Europako olatu handien txapelketa zaharrenagatik egin da ospetsu.

ES

Desde el búnker, la senda costera que seguíamos se transforma en un cómodo camino empedrado que nos guiará hasta Punta Galea, donde encontraremos el faro y el fuerte de del mismo nombre, una edificación del siglo XVIII erigida con el objetivo de defender el tráfico comercial hacia Bilbao. Es el único ejemplo de construcción militar de aquel siglo que se ha conservado en Bizkaia. En los últimos años este lugar se ha hecho famoso por el "Punta Galea Challenge", la competición de olas grandes más antigua de Europa.



KM - 18

EU

Algorta


Dagoeneko Getxon gaude. Bost auzo nagusik osatzen dute udalerrri jendetsu hau: Andra Mari, Algorta, Areeta, Neguri eta Erromok. Etxe-multzo zabal hori bere historiaren isla da, industria-burgesiaren bizileku gisa duen iraganagatik ondare monumental handia baitu, baina aldi berean, bere itsas sustraiekin lotura mantenduz

Gure bideak Galea lurmuturra eta Algortako herriguneko Arrigunaga hondartza lotzen ditu. Baina tartean, Bizkaian dagoen haize-erota bakanetako baten ondotik pasatuko gara. Errota bitxi hau XVIII. mendean izandako lehorten luze baten ondorioz sortu zen. Bi urte behar izan ziren martxan jartzeko, 1726tik 1727ra, eta lanean jardun zuen berau eraikitzeak arrazoiek iraun zuten bitartean. Erabiltzeari 1787an utzi zitzaion.

Arrigunagako hondartzatik, ibilbideak, Algortako kaleetatik zehar, Portu Zaharrean utziko gaitu. Txoko polit hau, gaur egun, bisitarien eta bertakoen aisialdirako gune bihurtu da. Portu Zaharra Getxon historia eta tradizio gehien duen tokietako bat da. XVII. eta XVIII. mendeetan ditu bere sustratriak, eta Abrako portuko baldintza fisiko eta meteorologiko bereziei lotuta dago.

Itsas mailara jaitsi ondoren, pasealeku atsegin batek Ereagako hiri-hondartzara eramango gaitu lehenik, eta pixka bat aurrerago, aisialdi-eskaintza oparoz beteta dagoen Getxoko kirol-portu modernora. Arriluzeko itsasargi ederrak Areetarantz joateko bide erosoena erakusten digu, itsasertzetik alde egin gabe. Etapa amaitu baino lehentxeago, Evaristo Txurrukaren monumentura iritsiko gara. Ingeniari nafar hau funtsezkoa izan zen Bizkaiko itsas historiako. 1877an Bilboko Portuko Obren Batzordeko zuzendari izendatu zuten, eta berak egin zituen Nerbioi itsasadarrean eta haren bokalean nabigazioa hobetzeko erreformak. Abrako Kanpo Portua (1904) Evaristo Txurrukaren maisu-lana da.

Nahiz eta Txurrukaren monumentutik han dagoela sumatu, azken metroak ibili beharko ditugu Bizkaiko Zubiaren oinetara iristeko eta, horrela, amaiera bikaina eman GR 123 Bizkaiko Itzuliko etapa ikusgarri honi.



ES

KM - 18

Algorta

Ya hemos llegado a Getxo que está formado por cinco núcleos con numerosa población: Andra Mari, Algorta, Las Arenas, Neguri y Romo. Este extenso municipio es un reflejo de su historia, ya que cuenta con un gran patrimonio monumental, debido a su pasado como residencia de la burguesía industrial, manteniendo al mismo tiempo un nexo con sus raíces maríneas. Nuestra ruta conecta Punta Galea con la playa de Arrigunaga en el núcleo de Algorta. Pero en el camino pasaremos por delante uno de los pocos molinos de viento que se conservan en Euskal Herria. Se construyó a raíz de una prolongada sequía que tuvo lugar en el S. XVIII. Dos años fueron necesarios para ponerlo en marcha, de 1726 a 1727, y funcionó mientras duraron las causas que motivaron su instalación. Dejó de usarse en 1787.

Desde la playa de Arrigunaga el sendero se enreda entre las calles de Algorta para llevarnos hasta el Puerto Viejo. Este antiguo puerto de pescadores, hoy en día se ha reconvertido en zona de ocio y recreo de los visitantes y locales. Es uno de los lugares con más historia y tradición de Getxo. Sus inicios se remontan a los siglos XVII y XVIII y están ligados a las peculiares condiciones físicas y meteorológicas del Puerto del Abra.

Tras bajar al nivel del mar, un agradable paseo marítimo nos lleva primero a la playa urbana de Ereaga y algo más adelante al moderno puerto deportivo de Getxo con una extensa oferta de ocio. El precioso faro de Arriluze nos indica el camino adecuado para dirigirnos hacia Las Arenas sin abandonar la orilla del mar. Poco antes de llegar al final de nuestra etapa nos encontraremos con el monumento a Evaristo Churrua. Este ingeniero navarro fue fundamental para la historia marítima de Bizkaia. En 1877 fue nombrado director de la Junta de Obras del Puerto de Bilbao y desde este puesto llevó a cabo importantes reformas para mejorar la navegación en la ría del Nervión y en su desembocadura. El Puerto Exterior del Abra (1904) es la obra magistral de Evaristo de Churrua.

Aunque ya desde el monumento a Churrua se perciba su presencia, tendremos que caminar los últimos metros para llegar a los pies del Puente de Bizkaia y así terminar con broche de oro esta espectacular etapa de la GR 123 Vuelta a Bizkaia.



KM - 20,4

Bizkaia zubia”

EU

Bere garaiko ingeniartzaren miraritzat jotzen da, eta burdinazko lau dorrez osatutako egitura batek osatzen du. Dorre horiek, elkarren artean langeta batez elkartuta, 160 metroko luzera duen egitura bat osatzen dute.

Bizkaia Zubia 2006ko uztailaren 13tik UNESCOren Munduko Ondarearen zerrendan dagoen Euskadiko monumentu bakarra, eta Estatu osoko Industria Ondarearen kategorian dagoen bakarra ere bada. Munduko lehen zubi transbordadorea izan zen, eta 1893an inauguratu zenetik dago martxan.

Zubi esekiak bidaiariak eta ibilgailuak Areetako Nerbioi ibaiaren eskuineko ertzetik Portugaleteko ezkerretara igarotzeko aukera ematen du. Alberto de Palacio ingeniari bizkaitarrak diseinatu zuen 1887an, eta Bizkaiko ikono ospetsuenetako bat izan da luzaroan.


ES

El puente de Bizkaia

Considerado una maravilla de la ingeniería de su tiempo, está constituido por una estructura formada por cuatro torres de hierro que unidas entre sí por un travesaño logran formar una estructura de 160 metros de longitud.

El Puente Bizkaia es desde el 13 de julio de 2006 el único monumento de Euskadi incluido en la lista de Patrimonio Mundial de la UNESCO, y el único dentro de la categoría de Patrimonio Industrial de todo el Estado. Fue el primer puente transbordador del mundo y lleva funcionando desde su inauguración, en 1893.

El puente colgante permite el paso de pasajeros y vehículos entre las orillas derecha del Nervión en Las Arenas a la izquierda de Portugalete. Diseñado por el ingeniero vizcaíno Alberto de Palacio en 1887 fue durante mucho tiempo uno de los iconos más famosos de Bizkaia.



Alberto de Palacio, 1893
Zubi transbordadorea
Puente transbordador
Transporter bridge





GR[®] 123
BIZKAIKO BIRA OINEZ
SENDERISMO
HIKING
LA VUELTA A BIZKAIA - THE TOUR OF BIZKAIA

Bultzatzailea: Bizkaiko Foru Aldundia

Promotor: Diputación Foral de Bizkaia

Tfn: 94 4067700



Bizkaiko
Mendizale
Federazioa

ingenieríaSendo s.l.

 **Bizkaia**
foru aldundia
diputación foral